

ezagutzen al duzu Donostia?


Aliriko zubia

Zubieta Donostiari dagokion herria izan da historian zehar. Usurbil (Belmont de Usurbil zaharra) fundatu zenean Zubietako etxe asko herri berri horren parte izatera pasa ziren (heren bat gutxi gora behera) eta garai haietatik zatitua gelditu da bi Udalerrien artean.

Antzinan Zubieta bere herri buruekin Irubitatako Ibiaren bidez komunikatzen zen. Ibi hau Oria ibaiko Leartitzako urbitarte edo islarren buruan kokatua dago. Ibia pasatzeko zailtasunak ikusi eta Zubietako herriak zubi bat eraikitzea erabaki zuen. Zubia Usurbil aldeko Txikiardi eta Zubieta bereko Aliri oinetxe eta baserri zaharraren artean. Oria ibaiaren gainean eraiki zuten, aipatu bi baserrietako ugaldak* lotuz. Zubietako herriak lana egin eta ordaindu zuen, dena bere 32 baserrietako komunitatearen kargu. Ez zuten lan makala hargin haiek!

Gaur egun ere hemen agertzen zaigu Aliriko zubi eder hori, harri landuz egindako bere bi begi handiek Oria ibaiko urei bidea uzten diotelarik. Ez dute ez, uholdeek eraman zubi bikain hau!

* Ugaldak: Oria ibaiko ur ertzari soilik deitzen zaio izen honekin Zubietan. Bestalde, uholde edo erriberak «zampiarra» izenez ezagutzen dira.



Aliriko
zubia Oria
ibaiko bi
ugaldeak
lotzen

Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

Maintoni

Gauaz eta egunaz
zugana pentsatzen,
zure begiak naute
ni enamoratzeko
atoz, atoz neugana.
Maintoni maitea
nere konsueloa
da zu ikustea.

Maintoni maitea
zu ikusitzean,
nere bihotzean,
begi beltz ederrakin
kolorea fina.
Maintoni, zure ondoan
zer da erregina?

Begiz-begi jarririk,
kutuntxo maitea,
iruditu zitzaidan
zeurea ikustea.
Nere bihotza dago
konsueloz bete
izango zeralako
neure emaztea.

Joandako mendean ezagunak ziren bertso hauek Donostian. Jose Antonio Santestebanek (1835-1906), modan zegoen moduan, berak sortutako zortziko doinua egokitu zien eta oraindik gehiago zabaldu ziren. Doinu polita zen gainera eta kantutik danbolinteroen errepertoriara pasa zen. Bertsoek garai hartako guztien antza dute, baina nork eginak diren ez dut jakin ahal izan.

Oharra: Irutxuloko azken alean «Donostiako kantutegia» sail honetan, dagoeneko hamaikagarren alean sartuta zegoen abesti bat eman genuen berriro ere. Barkamena eskatu behar beraz!